

EZAGUTU EUSKALERRIA

Agintekera

Nekazaritza erakundetik sortzen zan politika-antolaketa, sendien elkarte bat da, «federazio» bat. Baiña ez nolana artuta, sendia etxeari loturik bait-zeoan eta etxea bere lurri.

Onela erriak ez tiran eztean bildumak baizik; eta etxeak ziran beren ordezkari, erri-batzarra (municipio) sortzen zutenak. Erriak berak ziran beren buruen jabe; arazoak zuzentzeko, berriz, erri-batzar irekia zuten agintari.

Erri bakoitzak berak zuzentzen zuan bere burua erri-batzarraren bidez, erriar zuzentzat zabalik egon oi zan batzar irekiaren bidez, alegia. Geienetan eliz-atarietan biltzen ziran batzarrean.

Edozein erriar zan aukeratu zaila eta edozein gerta zitekean aukeratu. Gipuzkoan bakarrik XVI-gn giza ditutik asi ziran baldintzak jartzen; aukeratu izateko ezekik, aukeratu izateko ere «millares» zerbitzaren jabe bear zuten izan. Bizkaian etzuten onelako baldintza eta mugarik.

Erri-batzarraren ordezkok, elkarrekin bildurik, osatzen zituzten Batzar Nagusiak (Juntas Generales), eta auek ziran lege-batzarrak. Amaika eguneko batzaria izan oi zan. Eta erriatoko ordezkariak antesukuzen erabaki oi ziran gora-beera guziak.

Iñoz garrantzi aundiko erabakiak ere artu oi zituzten. 1482-ko urtean Ingoterrako Erregearekin amak urtetako ituna egin zuten leorrez eta itasoz elkarrekin pakean biziko ziralako elkarki aginduz.

Geroago sortu ziran Aldundiak (Diputación): lege-betazele ziran elkarte auek eta Batzar Nagusiek izendatu oi zituzten aue-tarako gizonak.

Euskalerriko politika-antolaketari dagokionez, bereziki gogoan artzeko da erri-aginte edo demokrazikera. Bestalde, erriar guziak berdin-berdin eskubide zuten politika-gaietan. Benetan bitxi eta arriagarri gertatzen ziran bi ezagurari oiek aldi atiarako, batzere ere, beste lurralde geienetan jokabide aien garbirik etzalako.

XV-gn giza aldiz ekeroako eskubideak bereganatzen eta agintarizari, aurrena Erri-batzarrari, gero Batzar Nagusiarri neurriak artzen joan zan goi-maila edo aundizkien taldea. Gaitzen joan zan erri-agintea.

XIX-gn giza aldian asieran gsi zan indartzen eta zabaltzen Europa zear erriren desberdintasun eta alde guzien berdintzaile da Nazio berdina eta baterakolare iritza.

Napoleonek gerrateak erri-batuena Estatu indartsua sortzeko gogoan ere zuten. Bear onen gorri Italiak nabaitu zuan nabarmen. Estatu txikiatua sakabanatua. Edozeinek menderatzen zuan. Erromako Inperioren aunditasuna gogoan zualarik Estatu aundi bat egiteko ametsari eutsi zion.

Iraikin zion Frantziari ere aundinariaren odolak. Berdintzaile eta erdiratzaile biurtu zan. Mendean artu zituan erri guztietan joera berdiña azaldu zitzaion. Españan bertan ere asmo oiek bear nagusitu zitzaizkion.

1808-gn, Baionako Batzarrean, Españako errege izendatua izan zan Jose Bonaparte. Batzar artan Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Fueroen gora-beera aztertzea erabaki zan eta Nazioaren berbitzuan jartzea.

Fernando VII-ren garaatik asita Fueroak kendu arte etzuten onik izan Kastillako erregeek.

Erri guztiak zuten erri-aginte edo demograzia antolaketa aspiendienean. Beste erriekin bat da orian gurea ere. Bestetan, ordea, askoz leenago galdtu zan. Euskalerrian, berriz, luzaro iraun du, bestetan galdtu ondoren ere.

Eta au da, aien zuzen ere, Euskalerriko gizaratearen ezagurrari berezia: geldiroaigo eta era desberdinean aldatu zala kondaira zear. Bere erarik zaarrenean gordetzen du Euskalerriko ipar-aldeak eta aldirik luzeanean, iraupen onek berak kera bitxia erasten diolarik.

IKASTOLAK

Dionisio Amundaraini

Apirillaren bostean Zeruko Argian zuki idatzitako du gaur nik gai.

Umeen gorabeerak beti izan zaizkit gogo-gogoko.

«Gure ikastolaz zuzentzen ari diren jorabideak», diotzu.

«Apsaldi ontan artikulu ugari irakurri dugu—diotzu— ikastolaei buruz». «Prolema latza, diotzunez. Etz «entsegu» bat egin nai duzu. «Sintesia» bat eginen lagundu nahi du. «Erregela» batzuk ere bear dituz: «oifariko erregelek». Eta «orixe da gure artean garbi ikusten ez deguna», diotzu.

Nik ez nuke «ez degu» esango. «Ez det garbi ikusten» esango nuke. Zuk garbi ikusi ez arren, garbi ikusten duan bat izan leike ta.

Gauzatxo batzuk argitu nai nituzke zure artikuluari buruz.

Bi gaita nabari dirala diot. «Artikuluetan eta jokabideak zuzentzen ari diranen artean»:

a) «Andereño nahiz maisu batzuei lepazintzailu Maoren irudia ezartzen ditela, horiek ez dirala euskal irakusle izateko gauza. Gurasoak dutela itza ikastolatan».

Prolema bakarra beela jartzen dezu parrafo au. Nik iru ere ikusten ditut.

—Maotarrak dirala edo.

—Euskal irakusle izateko ez dirala gauza.

—Gurasoak dutela itza ikastolatan.

8.000 ume ba omen dira Gipuzkoako ikastolatan eta au ezin leike bertan bear utzi. Argitu egin bear da.

b) Bigarren parrafoan segregazioa konstatu esaten dezu. Beste erdel eskolotako umeekin ikertatzen aien egin dala edo... ote diotzen nago. Bigarren oniek ez diot inportantzirik ematen. Gure arteko

gora-beerakin naike lan ba degulatan nago.

—oOo—

Prolema auei erantzun naiean, galdera batzuek egiten dituzu.

a) «Zirt edo zart garbi ahal daiteke prolema bat?», diotzu.

«Nola erakustek ez ahal darana berarekin zer erakutsi, eta zer erakustek ez ahal darana berarekin nola erakutsi».

Baif Zirt edo zart, dogmatikerez alegia, ezin ditek gauzarik giza artean bear bezela erabaki. Aurre-raxeago diotzen bezela «elkar-hizketaren dialektika» bear dugu; ez «bururaren dialektika».

Zer eta nola ezin ditek oso-osorik berezi. Orrexeatik diot, gurasoak ezin dezatete lauren eziketa edozeiñen eskuetan utzi; ezin dutela alegia, bere-bere dituzten aurren eziketa, beren eskuetan utzi. Aurrari jantzia egeritakoan, jostuna amak aukeratu oi du; koloreta, tela klasea, itxura bear ere amak erabakitzen ditu. Nola egin, teknika alegia, jostunari dagokio.

gorputza jazerakoan ori, ta... ententimentua jazerakoan...?

Ori esan nai izango zenduala este det zure parrafotxo orrialde. Ederki

d) «Andereño nahiz maisu sahiestu ahal daitezke», diotzu.

Jostunarekin bezela: amak aukeratu ta jantzia egiten ez ba du andereñoak...

e) «Zirt edo zart prolema au? Ego dixi batekin? Ez—diotzu— elkarhizketarekin batekin baizik».

Oso diotzu ederki. Eta... bateren batek zirt edo zart erabaki nai izan aial du prolema au? Ego dixi batekin? Jakitea konbeni litzake au: dogmatikerez ia leporafio eginda gaude ta.

f) «Mundua morroitu naiean da bilien diruaren indarra ez ahal da ageri zabal-zabal?» diotzu.

Zabal-zabal ageri ba da, ez galdetu. «Orela da» esan eta kito. Nolaz diotzu diruaren indarra? Nik ezin det ori garbi ikusi. Begiak lausotuta edo... nik, Baiña gertaera txiki bat datorkit burura: Bein lagunarte batean «masoia zer dek?» galdetu zuan batek. «Nik esango diat» erantzun zion beste batek. «Ori Fernando Ametzetarrarena, dek. Ipui guziak izan ala ez izan Pernandorenak dituk Gipuzkoan. Eta... masoia ere orixe dek: pekatuz guzien «jabea». Eta... diruaren indarra ez ote emen orrelako zer-bait?

«Nun da—diotzu— Batikano II gnaren irekitasuna?»

Au ere Pernandorena bezela ez

—Maotarrak dira ala ez?

—Euskal-irakasle izateko gauza dira ala ez?

—Gurasoek dute itza ala ez?

ote da? Batikano bigarrena ia-ia saltsa guzietako perrejili egin zaigu.

Zure galderak auek dira: —Maotarrak dira ala ez?

—Euskal-irakasle izateko gauza dira ala ez?

—Gurasoek dute itza ala ez?

Galdera auei erantzun bear zaie. «Gazteriaren gogorkeria, gure gogorkeri ta nagusikeritiko et darion nago», diotzu aurreraxeago.

Maotarrak dira ala ez? Euskal irakasle izateko gauza dira ala ez? Gurasoek dute itza ala ez?

«Elkar-hizketaren dialektika-bidea gazteriari ematen ez ba diogu, zertan arritu giza-mailen bururaren dialektika bidea delako teoriara josten ba du».

Zer esan nai dezu or? kastolotako andereño ta maisuek giza-mailen bururaren dialektika bide-tik jo dutela? Ori derizkiot zure itzetatik. Ori garbi jakitea konbeni da. Gaizki egiten dutenik ez diot nik. Baiña gurasoek eskubide osoa dute bide ori ez nai izateko. Eta ori orrela bada, gurasoak beren kezka ta ardura izatea arrazoizko gauza da.

Baiña nik... leengoa orain ere. Au ez da gaurko auzia.

—Maotarrak bai ala ez?... Aurreraxeago:

«Historiaren zear izan dituen krudak, erlijio gudak eta nagusikeriak aski ditu elizak bere bizkar gain».

Arrazoi oso-osoa.

«Gaudium et spes: elkar-hizketari buruzko enziklika bat; ba dakigut kristau ez diranei buruz ez dezake-gula joka lehen bezela».

Bai oso ederki. Oso ere. Baiña...

—Maotarrak dira ala ez?

—Euskal-irakasle izateko gauza dira ala ez?

—Gurasoek dute itza ala ez?

Zuk akzenean diotzuna diot: nik ere: Mintza gaitzen gutxiago erlijio-az, eta bizi dezagun egizago.

BARRUTIA

Gainditu Egin Bear

eman dezagun Arthur Rubinstein pianista famatua. Pianoaren aurrean exerci da, eta hasi bezin laster, piano hari oleriko daro. Partituraren jaldirik zailenatan, begiak hetsi, eta arie hutsetik irten gabe joko du dena. Alegia: pianoa ez zaio burrukaleku bat, olerik-tresna bat baizik. Rubinsteinek teknika-arazoak gaingitu egin ditu arras, eta artista biki-kain gisa minto zu gaur pianoaren bidez.

Eman dezagun orain pianista kas-kar bat. Teknika aski ez izanik, zein nota joko duen, eta nola asmatuko duen, haren kezka nagusia da. Olerik-iki ez dago; eta eresirik ederrenean huts batek honduko du musika-giro osoa behin eta berriz. Pianista hau teknikaik honuzat dugu; pianoa iferua eta otzopoto zaro oraindik. Ezin ditek has ere aterik egin-tzen, tresna erabiltzen ez dakita. Entzuleak larri ere, eta buka dezan hirrik.

Bigarren hauze da gure kasoa: euskaldu idazleek bereziki, gure hizkuntza sekula kultura-bide izan ez delako, ez dugu tresna egokirik. Gauza ageria da oraindik ere ortografiari dagokionez, aditari dagokionez, beharrezko den teknika eta nagusitasun horretatik HONUNZ gaudela; eta burukkan ari garela gure mintzaira nola gaitu ez dakigularik. Gure kultura, horretara, kultura-aurrea da; gure kondaira, beste maila batean, kondaira-aurrea den bezala. Pianista kasarraren egoera da gura.

Hots, «teknika-aure» aldi hits, agor, eta negargarri horretatik irten bear GORRIA dugu. Herri bat ezin ditek betirako egon gramatika-

lari-zulo bihurturik; hori ez da inun gertatu, eta ez gertatuko. Euskera bakar bat bear dugu.

Euskera batu horren OINHARI TXIKI BAT Arantzaz ipini zen 1968-an. Hori bera ere ez onharitza ere hizkuntzari eta gure herriari EZPATA BAT sartzea da. Tresnatunari dagozkin arazo aspargarri hauetatik irten beharra dugu. TRE-NA BAT BEHAR DUGU. Aren: utz dituzgan arloteriak alde batera. Hizkuntzalari ospatu bat badugu, Sorbonen erakle: nor hobierik gure hauzi TEKNIKOAK erabakitze-ko, haren proposamenduak euskal-izaleen gehiengoak onhartu ditue-larik?

Gure herriak mintzaira bat bear du. Eta euskaldun idazleok ezer ematen HASTEKO, gramatikakera eta sasi-jakintsukeria hauetatik atera beharra dugu. Gure herriak liburuak bear ditu: irakusintzaz, arteaz, kondairaz, literaturaz eta politikaz. Euskal irratsaioak egiteko hizkera bakar bat bear dugu. Hauen sor-rreran hasiko da gure kultura ma-ritzen.

Konponbidea, beraz, ez da ez-iku-sia egitea, eta orain arteko nahas-pila beltzari eustea. Bidea basterik da: gure hizkuntza zorroztuetza eta osatzea, tresna eta mintzabide egoki izan dezagun.

Eta, ha u bai, tresna horretaz idazle garen guziok ARRAS JABE-TZEA. Bidea ez da, beste alde ho-nelatik ere, tresnaz azolarik ez izae-ta; tresnaz ARRAS JABETUZ, TRESNAREN ARAZOA GAINDI-TZEA BAIZIK. Pianistak eta irudi-gieak, arteginzarakoan, beren tek-

nika bereziez arras nagusitzen diren bezala.

Zentzua galdtu ez duten herriek hor-rella jokatuta dute: oinharrietatik gor-ara, eta ez alderantziz; edo nahaste-borrastean.

Tzekiarrak eta eslobakiarrak, esa-tre baterako, beren hizkuntzen ba-suna erabaki ONDOREN, erakitzien HASI ziren; eta M. Kunderak dio-nez, «notre peuple, durant le XIX-e sicle, a dû consacrer tous ses efforts à jeter les bases premières de sa culture, de l'enseignement secondaire à la rédaction d'une encyclopédie». Nola uka gu, oraindik ere, adiuntza horretan garerik; eta tres-na gabe (alegia, euskera baturik ga-be) urrats hori bera egiterik ez dau-gakula?

Prolema bera dute arabez mintzo diren herriek. Tunizian esate bate-rako; zeren-eta «l'arabe classique avec ses déclinaisons est presque aus-si éloigné de la langue parlée que le français du latin» (Girod de l'Ain). Halere, Tunizian arabe klasi-koa da haren «arabe batuas»; eta es-kolako lehenengo bi urte osotzen ARABE BATU HORI EZ BESTE-RIK baltatzen da Tuniziako irakun-tzian (frantsesaren hastapena HI-RUGARREN ikastaroan hasten da, beti ere arabe batu irakuspiek na-gusi geldituz). Burbiga ba ez da Nas-ser edo Ben Arafra; eta halere bide hori hartu du, nahiz, askotan pro-blema latzak agertu: bertako arabe-rabz mintzo diren tuniziarrek eska-biltzen bait ziren hasieran arabe klasi-koan.

Nola onhar dezakegu oraindik, isilik eta lotsatu gabe, piktuan, eta bear eta errealdade guzien kontra, azken bururaino beren seta buruga-beei eustea erabaki duten sasi-jaki-tsua harrozkoak? Noiz arie folklori-keria eta tribalismoa gure artean erespelatgarri?

Isil bitez, otoi, gure hizkuntza DAGOENETIK TRESNA BALJA-GARRI izan dedin nahiz ez duten zozoak eta zoroak. Aski eta larregi dugu!

LARRESORO

BATASUNA BEHAR?

Bai, oso ere bear. Ba ote hori ukatuko duen euskaldu-nik? Nolako batasuna, ordea? Nork tajututakoa? Guztiok buruzagi eta jauntxo izateko sortuak dirudugi herri hone-tan; inor goratzeko baino eraxteko iaioago; euskera ba-tu bakarra ez baizik zortzi edo hamar euskera batu as-matzeko gai. Bide bakarra dugu, beraz, euskera batu ba-karra sortzeko. Guztiak izala eta begirune duen mailurari jarraitu; inork inoiz jakin duen euskararik gehien da-kienari men egin; harrokeria-za eta jauntxoerikaz zokoratuz, mailu horren inguruan guztiok multzoka bildu.

PATXI ALTUNA

Zuzendaria: MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Naparroko-Kantauriko ta Ara-goko Kaputuinok argitaratua (Mayur, 50-1.º-Burlada Pamplona)

DONOSTIA' n: Oquendo, 22-Telf. 26666

ARPIDE SARIA:

Barruan	215 pezeta
Korreo batasu-netako errietan	...	265 pezeta
Atzerietako bes-tet errietan	285 pezeta
Aldez	Aurrez galdetu.	
Salmentan (Ale bakoitza)	5 pezeta